

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, EUDELEK ETA EMAKUNDEK BERDINTASUN SAREA SUSTATUKO DUTE BIZKAIKO UDALERRI TXIKIETAN

- **Gaur (osteguna), Bizkaiko mankomunitate eta udaletako Berdintasun arloko politikarien eta teknikarien arteko aurrez aurreko topaketa egingo Bilbon.**
- **Hausnarketarako eta lan parte-hartzaileko tailer batean (workshop), udalak hainbat gairi buruz eztabaidatuko dute: hizkuntza eta irudiak, genero-ikuspegiko aurrekontuak, bateratzea eta erantzunkidetasuna, edo sexuaren aldagaia datu publikoetan.**
- **Udalerri txikiek eta handiek Bizkaian egindako tokiko esperientzien eta praktika onen berri emango diete elkarri.**
- **‘Berdinbidean Bizkaia’ programa 2011n sortu zen, eta babeserako tresna instituzional gisa sendotu da, udalerri txikietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abiarazteko orduan.**

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 29an. Berdintasun arloko hainbat teknikari eta politikari elkartu dira gaur EUEDELen Bilboko egoitzan, **‘Berdinbidean Bizkaia’** sarea osatzen duten udal eta mankomunitate guztien arteko lan-topaketan parte hartzeko, udalerri txikietako berdintasun arloko tokiko politikak sustatu eta garatzeko asmoz. Gaur egun, sarea oso zabala da, eta bertan bilduta daude Bizkaiko udalerri txiki guztiak (5.000 biztanletik beherako 79 udalerri) eta 7 mankomunitate.

Gaur goizeko jardunaldi-irekieran, 50 parte-hartzaile baino gehiago bertan zirelarik, hiru erakundeetako ordezkariak egon dira jardunaldiaren irekieran: **Ibon Uribe**, Galdakaoko alkate eta Eudelen Batzorde Eragileko Berdintasun Saileko ordezkaria; **Izaskun Landaia**, Emakunderen zuzendaria; eta **Xabier Legarreta**, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria.

‘Berdinbidean Bizkaia’ programa 2011tik dago martxan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak bultzatuta eta Eudelen koordinazio teknikoarekin, tokiko ekimenak dinamizatzen dituen Berdinsarea udalerrien Saretik. Emakundek programako ekintzen errefortzu gisa ere kolaboratzen du, Araba eta Gipuzkoako udalerri txikietara ere iristen den **‘Berdinbidean Ekintzak’** hitzarmenaren bitartez.

Hiru euskal erakundeen arteko **lankidetzari** esker, lan-sare egonkorra eta kontsultarako eta aholkularitzarako zerbitzu iraunkorra sendotu ahal izan da Bizkaian, eta udal txikiek etekina ateratzen diote horri, ez dutelako baliabide nahikorik eta babes teknikoa behar dutelako Berdintasun arloko lanerako. ‘Berdinbidean Bizkaia’ ekimenari esker, **sinergiak sor ditzakete**, eta ahaleginak ere elkartu ditzakete, Berdintasun arloko ekintza bateratuak egiteko eta, ondorioz, udalerri horietako bizilagun guztiei on egiteko.

Era berean, gaur goizean egiten ari diren topaketak Bizkaiko udal handi eta txikien arteko **lotura** sendotu nahi du; horrela, azken 4 urte hauetan (programa ordutik baitago martxan Bizkaian) lortu diren tokiko **esperientziak eta praktika onak** elkartrukatzeko espazioa ahalbidetzen da. Horretarako, bertaratutakoek **taldeka eztabaidatuko dituzte** denei interesatzen zaizkien hainbat gai; esate baterako, *genero-ikuspegiko aurrekontuak, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-baztertzailea, bateratzea eta erantzunkidetasuna, edota sexuaren aldagaia sartzeara datu publikoak jaso eta aztertze*ko prozesuetan.

Jardunaldiaren amaieran lortutako ondorioei esker, “Berdinbidean Bizkaia” ekimenetik erantzun daitezkeen gaur egungo beharrianak eta etorkizuneko erronkak identifikatu ahal izango dira. Eta hori guztiori, lurralde mailako **estrategia bateratuari** forma ematen jarraitu ahal izateko, eta Bizkaiko udalerrietan (edozein direla ere bertako populazioa eta baliabideak) emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna inplementatzeko.

2014ko ekintzen balantzea

Joan den urtean burututako ekintzen artean, aipatzekoak dira generoaren ikuspegia sartzeko prozesuak, horretarako udal politikari eta teknikariek hainbat bilera egin direlarik, bilera teknikoak eta politikoak, hain zuzen ere.

Garatutako lan-ildoetan hainbat arlo landu dira: **hizkuntza eta irudiak, adiskidetzea eta zerbitzuen erantzunkidetasuna**, genero-plangintza, **aurrekontuetako genero-ikuspegia** edo lanpostuetako genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, besteak beste.

Landutako ekintzen artean, nabarmentzekoa da **"jaietan berdintasuna lantzen"** deritzona. 2012. urtean abian jarritako ildo tematiko bat da, "jaietan berdintasuna kontuan hartzeko" tresnak jai-batzorde eta udalekin kontrastatzeko aukera ematen duen ekintza pilotu bat, hain zuzen ere. Beste ildo batek, **"Mankomunitateetatik lanean"** izenekoak, mankomunitateen artean topo egitea ahalbidetu du, mankomunitateek udalerri txikietan berdintasunari nola heltzen dioten ezagutarazteko.

5.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerri guztiek jaso dute Berdinbidean-ek eskaintzen duen informazio zerbitzua. Gainera, **123 kontsulta erantzun dira**, on-line eta telefonoen bidez.

EUDEL, Aldundia eta Emakunde ere bat etorri dira berdintasuna lortzeko hiritarren partaidetza sustapena azpimarratzeko ahaleginetan. 2012, urtean diseinatu zen udalerri txikietan berdintasuna sustatzeko **Berdineskola** eskolaren bidez, hiritarren partaidetza bultzatu da eta Emakunderi ekintza-beharrianak helarazi zaizkio.

Programari buruzko informazio gehiago:

www.eudel.eus/berdinbidean

www.bizkaia.net

www.emakunde.eus